



Arartekoaren 2020R-283-2020 Ebazpena, 2020ko abuztuaren 14koa. Horren bidez Debako Udalari gomendatzen zaio berariaz ebatz dezala hirigintza-informazioa bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko eskaria.

Aurrekariak

- Herritar batek Arartekoari azaldu dio Debako Udalak emandako erantzuna, hirigintza-informazioa bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko eskari baten aurrean.

Kexagileak azaldu duenez, 2010eko urtarrilaren 1az geroztik jarraitu diren eta funtzionarioa ez den teknikari baten txostena jaso duten hirigintza-espeditenteen kopia elektronikoa eskatu zion 2019ko abenduaren 31n Debako Udalari, bai eta hirigintza-ekintza publikoa gauzatu bitartean aurkeztu diren salaketei buruzko informazioa ere.

Bere erreklamazioan azaltzen duenez, Udalak eskari horri erantzun positiboa eman zion, baina gaur arte ezin izan da gauzatu. Izan ere, Debako Udalak jakinarazi dionez, aurrez aurrekusi behar ditu eskatutako agiriak Udaleko Hirigintza Sailaren bulegoetan.

Hala ere, kexagileak behin eta berriz adierazi du bere kexan ezinezkoa zaiola udal-bulegoetara joatea, eta, beraz, agiriok elektronikoki eskuratzeko eskatu du. Hori dela eta jo du erakunde honetara, dokumentazio hori bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko eskubidea erreklamatzera.

- Erreklamazio horri dagokion izapidea emate aldera, 2020ko otsailaren 27an Arartekoak informazioa eskatu dio Debako Udalari, kasu honetan kexagileak eskatutako hirigintza-agiriak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko eskariari erantzutean jarraitu den prozedurari buruz.

2020ko ekainaren 25ean, Arartekoak Debako alkatearen erantzuna jaso zuen. Udal-bulegoetan espeditentea ikusteko aukera emateko jarraitu diren jardueren berri ematen da bertan. Txostenaren arabera, zehazki, Debako Udalak 2020ko urtarrilaren 27an erantzun zuen, bere eskaera onartuz. Zehazki, aipatutako espeditenteak aurrez aurre udaletxe horretako Hirigintza Sailean kontsultatzeko aukera eman zuen.

Hala ere, udal-txostenak ez du adierazten zergatik ezin den dokumentazio hori bera bitarteko elektronikoen bidez eskuratu.





Kexa hori ikusita, haren planteamendua eta administrazio horrek igorritako informazioa aztertu ondoren, Arartekoari egokia iruditu zaio honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Oro har, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, araututa daude espediente eta erregistro publikoetako dokumentazioa eskuratzeko eskaerak. Artikulu horrek, d) apartatuan, zehazki, honako eskubide hau aitortzen die: *“Informazio publikora, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera”*

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea administrazio horren esku dauden eta bere eginkizunak betez egin edo eskuratu diren dokumentuei aplikatu behar zaie, edozein formatu edo euskarritan daudela ere.

Eskaera hirigintza-arloko informazioa eskuratzeko egin bada, modu sektorialean, hirigintza-arloko legerian jasotako informazioa eskuratzeko eskubidea aipatu behar da. Administrazioen esku dagoen hirigintza-arloko informazioa lortzeko eskubidea honako hauetan ere dago jasota: urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren (Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena) 5.c) artikuluan eta ekainaren 30eko 2/2006 Legearen (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa) 9. artikuluan.

2. Dokumentazioa eskuratzeko formatuari dagokionez, beharrezkoa da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 22. artikulua aipatzea. Horren arabera: *“Ahal dela, bide elektronikoz eskuratuko da informazioa, salbu eta ezin denean hala eskuratu edo eskatzaileak berariaz beste modu batez eskuratzeko adierazi badu”.*

Informaziorako eskubide horrek berekin dakar dokumentazioaren kopiak lortzeko eskubidea. Hala ere, kopiak egiten badira edo informazioa jatorrizkoa ez den beste formatu batera aldatzen bada, ordainarazpenak eskatu ahal



izango dira, aplikatu beharreko tasei eta prezio publikoei buruzko legerian aurreikusita dagoen moduan.

Era berean, herritarrek zerbitzu publikoetarako duten sarbide elektronikoari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea aipatu behar da. Arau horrek, izan ere, herritarrek administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko duten eskubidea aitortzen du.

3. Informazioa eskuratzeko eskubide honen mugei dagokienez, abenduaren 9ko 9/2013 Legearen 18.1. artikuluan informazio-eskaerak ez onartzeko hainbat arrazoi jaso dira. Nolanahi ere, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian hauxe adierazi da 2017ko urriaren 16ko eta 2020ko martxoaren 10eko epaietan: *"(...) La formulación amplia en el reconocimiento y en la regulación legal del derecho de acceso a la información obliga a interpretar de forma estricta, cuando no restrictiva, tanto las limitaciones a ese derecho que se contemplan en el artículo 14.1 de la Ley 19/2013 como las causas de inadmisión de solicitudes de información que aparecen enumeradas en el artículo 18.1, sin que quepa aceptar limitaciones que supongan un menoscabo injustificado y desproporcionado del derecho de acceso a la información"*.

Legearen 19. artikulua araberan, informazioa eskuratzeko eskariak ez badu aski identifikatzen zein den eskatzen den informazioa, administrazioak eskatzaileari eskatu beharko dio zehaztu dezala, hamar eguneko epean. Era berean, eskatutako informazioak hirugarrenen eskubide edo interesetan eraginik izan badezake, hamabost eguneko epea emango zaie horiei beharrezkotzat jotzen dituzten alegazioak egiteko. Eskatzaileari, edonola ere, horren berri eman beharko zaio.

Azkenik, adierazi beharra dago informazioa eskuratzea baimentzen edo ukatzen duen ebazpenak Administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 20. eta 88. artikuluetan jasotako aurreikuspenak bete behar dituela. Horrenbestez, eskariarekin bat datorren eta modu arrazoituan hartu den erabakia jaso beharko da ebazpenean.

Era berean, ebazpenaren aurka jarri ahalko diren errekurtsioak adierazi beharko dira. Gogorarazi beharko da, zehazki, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 24. artikulua autonomia erkidego bakoitzean eskuduna den Gardentasun eta Gobernu Onerako Batzordean erreklamazio bat jartzeko aukera ezarri duela. Erreklamazio hori, nahi izanez gero, informazioa



eskuratzeari lotutako berariazko edo ustezko ebazpen ororen aurka jarriko da, administrazio auzien bidetik aurkaratu aurretik.

Hala, Arartekoari bidalitako informazioa aztertuta ondorioztatu daitekeenez, Debako Udalaren ebazpenak baietsi egin du informazioa eskuratzeko eskubidea, agiriok udal-bulegoetan kontsultatzeko baimena emanda. Aitzitik, eskabidean berariaz adierazi zen beste bitarteko bat erabili nahi zela: elektronikoa, hain zuzen ere.

Horregatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b). artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau adierazi nahi dugu:

Gomendia:

Arartekoak Debako Udalari gomendatzen dio kexagileari emandako erantzuna berrius dezala, eskatutako dokumentazioa eskuratzeko, eta informazio-eskari hori ebatz dezala, sarbide elektronikoa emateko, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 22. artikuluan jasotako aurreikuspenen arabera.

Arartekoak Debako Udalari gogorarazi dio informazioa eskuratzeko eskariaren erantzuna bat etorri behar dela eskatutako sarbide-formatuarekin, eta, edonola ere, bete egin behar dituela Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 18., 19. eta 22. artikuluetan aurreikusitako zehaztasunak eta epeak.

